

Parapetoak

RAMON ETXEZARRETA



KONTUA ez da ETAK bat zuzenik ez duela egiten. Kontua da esan, bat bera ere ez duela zuzenik esaten. Amaran hil zuten poliziaren alaba eta

senideak aitak ezkututzat erabiltzen omen zituen. Ez dakit jendeak zer pentsatu eta ulertuko zuen «To autoa. Eman ezazue buelta bat eta lehortzen ez bada lanera joango naiz» esanaz abiatzen zen egunero edo bere familia erasoko ez zuten esperantzan haien artean nahasirik ibiltzen zela. Espikazio amorrak baina!

Ezkutuak denok erabiltzen ditugu. Gizaki ororen edozein erabakik bakar bere inguru guztia baldintza konkretu batzuetan jartzea. Zergatik tristatu behar gaitu Txomin Iturbe zenaren andere negartuen arazkari polizia baten alaba hildaren amaren historiari baino gehiago? Edo zergatik dira batzuek negariak eta besteak historikak eta ez alderantziz?

Ez nago konforme. Ez nago konforme horrelako espikazio eta adierazpenetan, ekintza guztietan ordu har, neu eta neurekin batera euskal gizarte osoa parapetotzat hartzen gaituztela sentitzen dudalako. Nere eta nere herritarren gogo eta asmoen izenean egiten dituzten guztiak dira kondenagarriak, eta bitartean egoera jasan, benetan jasan, parapetoak garenak jasaten dugu. Euskaldun normal bat izan nahi dut eta ez gogoan jartzen zaion edozeinen parapeto.

Burdinez hiltzen duena, burdinez hilko da

JOAN MARI TORREALDAI



BESTE arazo bati buruz asmoa nuen oraingoan ere. Beste askotan bezala. Ezin tentazioari eutsiz, Txikiren arazoari heldu behar. Bueno, baina zer esateko? Deus berrikerik

apenas. Arazo honen inguruan hitzegingoen den gutzia kontutan izanda... nik esan dezakekana... bost axola. Noski. Hiten itsaso handi horretan tantita bat izanen da. Noski. Hala eta guztiz ere, idatzi egin behar. Txikik eta bere solaskideek esan dutena, egia esan, ez interesgarria eta ez berria da bere horretan. Bere ahotsean entzutea, ordea, bai, hori bai. Bi arazorengatik: ezin duelako inork mezularia hil oraingoan. Ohitura ere bada jada politikoen artean hitzez hitz esandakoa lasai asko ukatzea, kazetariari errua leporatuz. Baina oraingoan ez dago interpretazio —edo transkripzio— arazorik tartean. Esana esanda dago, eta kitto. Hori bateko. Eta beste, sekretuak honela altaztearen arazoa. Ez omen dago eskubiderik. Agian ez. Baina beste kasu askotan bost axola izan zaie hori beraiak. Eskubideen auzia, lege-arazoa, ordea, eta ia seguru nago hortxe kokatuko dela eztabaida osoa. Eta hutsalala gertatuko dela. Baina badago horren gainerik beste arazo bat, etikarena. Arazo larriagoa, nere ustetan. Baina horretan ere ez dut uste sozialistak erudugarri direnik. Denak balio du gaur politikaren munduan, edozer gauzak, edozein bidek. Ala ez? Gogoratu: gutun pribatuez beldurra, telefono-entzuketak, dossier sekretu eta difamatzailen erabileria. Etabar luze bat gertakari-maila. Horrek denorok balio duen ingurunean zein sal dezaake etika-falta kasu honetan? PSOEek ez behinik behin.

HEMEROTEKA

● ELINDEPENDIENTE

Espainiaren konpromezua Saharan

Espainia eta Frantziak Sahararen auziari dagokionean, Hassan IIren erregimenaren aldeko jarrerak dituzte, eta arnez hornitzen dute. Frantziako Gobernu eta Marokokokoaren arteko tirabirak azken hilabeteotan, nolabait esateko, itxaropentsuak dira, baina Parisek eta Madrilek Perez de Cuellarrek egindako bake prozesua ixiltasunean apoiatzeaz gain, beste herriek baino ahalegin handiagoarekin lagundu behar dute. Mitterrand eta Gonzalezek EEBBei, Britainia Handiari, SESBeri, eta Txinari adierazi behar die beharrezko dela Segurtasun Kontseiluak baieztatu ematea erreferenduma egiteko. Dinamika horrek are ezinezkoago egingo luke, Hassan II orain arteko estrategiarekin jarraitzea: baietz esatea eta gero ezer ez egitea. Espainiak, gainera, ekonomikoki lagundu behar du, egiazatze prozesua kostako dela uste den 200 milioi dolar horiek edukitzeko.

EDITORIALA / 1991-IV-27



ZULET / EL DIARIO VASCO / 91-IV-27

● EL CORREO ESPAÑOL

Akordio operatiboa

Barne Saileko arduradunen elkar ulertzeak, guztiaren gainera adierazten du, desblokeatu egin direla arlo horretan ia erabateko arduradunen eta Estatuko eta Euskal Autonomi Elkarte Administrazioek elkar hartuta egin dela. Polizia Nazionalak eta Goardia Zibilek, Ertzantza dagoen tokietatik alde egingo dute, 1989. urtean hasitako prozesu bati jarraiki. Estatutuan aurkitutako dago, Estatuko Segurtasun Indarrak erretiratzea, eta esan nahi du,

Euskal Autonomi Elkarte Poliziaren gaitasun operatiboa hainbestekoa izanik, zerbitzu eraginkorra bermatu egiten duela.

Polizien kompetentzien eskualdeketa egin da Euskal Herrian «uste osoa dagoelako segurtasuna esku onetan geratu dela», Juan Maria Atutxa Kontseilariaren hitzen arabera.

EDITORIALA / 1991-IV-27

● EL SOL

Hutsarte bat Gorbatoxentzat

SESBn gobernu nazionalista eta antikomunistapean dauden sei

EDITORIALA / 1991-IV-27

ZUZENDARIARI

Eragozpen fiskala

Aurten ere, *errenta aitortpena* egiteko garaia iritsi delarik *eragozpen fiskalaren* kanpainan hasi gara. *Gastu militarrek* guztien artean ordaintzen ditugu *zergak* direla bide eta horrek kontzientzi arazo larria sortzen digunez, gastu militar horietan partek ez izatea erabaki dugu.

Arazo hori Golkoko gerra dela eta argi eta garbi azaldu zaigu. Saddam Hussein-i Jomeini-ren Iran eta Kurduak suntsitzeko saldu «genizkion» arnaka (INI zein euskal enpresa zenbait negozio zikin horretan sartuta bait daude) «gure» aurka erabiliko ote zituena beldurrik hartu «gintuenean». Gatazkan parte hartu duten herri iruzurrean saldutako arnez gainera, *komeni* da gogoratzea gerra egun bakoitzeko 60.000 milioi pezeta parra-parra galdutako direla eta kopuru horren hamarrena soilik (6.000 milioi) 3 milioi t'ardi pertsona heriotzetik salbatuko litzukeen

sei heriotzeko gaixotasunen kontrako txertaketa kanpaina bati ekiteko nahikoak litzatekeela (UNICEF ETA UNESCOren datuen arabera).

Bestalde, Espainiako defentsa gastuak urtean bilioi pezetaren gainera daude, hau da, 90.000 pezeta, lan egiten duen pertsona bakoitzeko. Berriz, Hirugarren Munduaren garapenerako dirulaguntza, herri horiei armen salmentatik ateratako diruaren herena besterik ez da.

Eragozpen fiskala, gaur egun, IRPF-PFEZaren gainera egiten da soilik, dirusarrera kutxa publikoetan bide horretatik bakarrik egiten bait dugu guk zuzenki. Aitorpena positiboa ateratzen bazaigu, zein «itzultzer» (urte osoan hileko nominatik hartu dute-nagatik) *eragozpen fiskala* egin liteke. Ez dugu orain eta hemen azalduko nola egin behar den, baina nahi duenak *Gipuzkoako Eragozpen Fiskal Taldera* jo dezake (Nafarroa ibilbidea, 28 atzea. Donostia: astelehen eta asteazkenak

7'30etatik aurrera edo 1330 posta kutxara idatziz). Hemen bakarrik azaldu, Estatuko aurrekontuetan Defentsa Ministeritzari dagokion chunekoak kentzen dugula gure zergetatik eta diru hori beste helburu alternatibo bati ematen zaio-la, hala nola, gizabidezko proiektuak, bake eta justiziaren alde, Hirugarren munduari laguntzeko, etab.

MAITE LOPETEGI ETA
BESTE ZAZPI LAGUN
(DONOSTIA)

Oharra:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idatzea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefona, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia argi eta garbi agertu beharko dira gutunean. Laburtu beharra izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako eskubidea.

PERTSONAIA



Ladis Galartza eta Julian Retegi

Horra hor Anoetan benetakoa saltsa izango da piperra izango da gatza biek jasan beharko hain une garrantza batetik Retegi bestetik Galartza bi buru ta txapel bat hau komeri latza norentzat izango dan gako hor datza.

JOSE LUIS GORROTXATEGI

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI
LUZJEN ETXEZAHARRETA
INAKI URUA

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Publizitatea:

KORNELJO ROTETA

Gerentea:

INMA GOMILA

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

Egunkaria

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22
Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industriaidea 01-02 Pabilioiak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapuri / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11